

HIZKUNTZA NORMALKUNTZA PROIEKTUA - 2022-2026

012468 CIFP Don Bosco LHII

2022-2026 epealdirako ikastetxe honek prestatu duen Hizkuntza Normalkuntzako Proiektu honek ikastetxearen Organo Gorenaren onspena duela aitortzen dut.

EREMUEN GAINEKO HAUSNARKETA

| | |
|----------------------|--|
| <p>Justifikazioa</p> | <p>Don Bosco LHII, Erreterian kokaturik, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren sare publikoan dagoen Goi-mailako Lanbide Heziketarako Berariazko Institutua da. 1960. urtean sortutako ikastetxe honek berriutako ikas eta kirol-instalazio erraldoiak ditu, guztira 60.000 m²ko azalera betetzen dutelarik.</p> <p>Bere heziketa eskaintza ondokoa da. 2021-2022 ikasturtean Hasierako eskaintzan</p> <p>ERDI-MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK Karrozeria (A/D) Elektromekanika (A/D) Telekomunikazioen instalazioak (A/D) Bero ekoizpenen instalakuntzak (A/D) Klimatizazio eta hotz instalakuntzak (A/D) Soldadura eta galdaragintza (A/D) Kimikagintza (Tolosako eraikina) (B)</p> <p>GOI-MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK Automozioa (A/D) Elektronika mantentze-lana (A/D) Bero eta fluidodun instalazioen mantenimendua (B) Metal eraikuntzak (A/D) Mekatronika industrialia (A/D) Analisi eta kalitate kontrolako laborategia (A/D) Produktu farmazeutikoak, bioteknologikoak eta antzekoak fabrikatzeko (A/D) Elikagaien industria (D) Kimika industrialia (Tolosako eraikina) (B)</p> <p>Gainera ondorengo zikloetan hizkuntza aniztasun taldea dago, modulu batzuk ingelesez ematen direlarik:</p> <p>Elektromekanika (A/D) Telekomunikazioen instalazioak (A/D) Elektronika mantentze-lana (A/D) Mekatronika industrialia (A/D) Analisi eta kalitate kontrolako laborategia (A/D)</p> <p>Ikasle guztiak 2. maila 3 hilabete igarotzen dituzte enpresetan(inguruoak edo atzerrikoak) lantokiko prestakuntza egiten. Bestalde, FP DUAL programaren bitartez, 2 mailan ikasketak eta ordaindutako lana partekatu dezakete.</p> <p>Beste heziketa eskaintza batzuk: - Zikloetako eskaintza partziala automozioa, hotz beroa eta elektronika zikloetan - Espezializazio programak, zikloak amaitu ondoren egin daiteken 3. ikasturte bat - Lanean dauden langileentzako ikastaroak - Langabetuentzako ikastaroak</p> <p>Don Bosco Goi-Mailako Heziketa Ziklo Berariazko Institutuak, Hizkuntza Normalkuntza Proiektuan sartzea erabaki zuen 1997-1998 ikasturtean, bere helburua ikastetxearen euskararen ezagutza, presentzia eta erabilera areagotzea izanik : irakaskuntza zuzenean, ikastetxeo paisaian, erakundeekiko harremanetan... .ikastetxeo bizitza orokorrean zabaltzeko asmoarekin.</p> <p>Eskeintza akademikoa asko zabaldu da, gaur egun 51 talde ditugularik hasierako eskaintzan hauetatik 21A ereduok, 23 D ereduok eta 7 B ereduok direlarik, guztira 1.000 ikasle inguru</p> <p>Langilegoari dagokionez, 150 irakasle inguru daude, 4 administratibo, mantenuko langile bat, 4 atezain eta garbitzaile bakarra (gainontzekoa azpikontrata batekoak dira)</p> <p>Ikastetxearen bilakaera soziolinguistikoa itzela izan den arren, bere aintzinako kulturaren (osotasunean A ereduokoa zenekoa) eragina zenbait arlo edo prozesutan nabarmena da eta oraindik ere badago bai lana egiteko.</p> <p>Inguruari errealtate soziolinguistikoiari dagokionez, ikastetxeo egoitza nagusia Erreterian kokatua egon arren, gure ikasleak leku askotatik datoz (Oarsoaldea, Bidasoaldea, Donostialdea, Buruntzaldea, Tolosaldea, Goierri, Nafarroa, e.a.), bakoitzaren errealtatea oso desberdina delarik. Bestalde 2.egoitza bat ere badugu Tolosan, egoitza nagusitik 32 kilometrotara.</p> <p>Gure erronka Ikastetxearen esparru desberdinetan euskararen presentzia, erabilera eta ezagutza hedatu eta trinkotzea da, hausnarketa kolektibo baten bitartez helburu, ekimen edo hobetu daitezkeen lan ildoak uztartzeko.</p> <p>Sortu dugun proiektu honetan ezartzen diren helburuak errealistak izan daitezzen saiatu gara, kontutan izanik, aurreko urteetako aurrerakada etengabe hobetzen edo handitzen joatea dela gure nahia,eta batez ere, ikastetxea osatzen dugun guztion proiektua bezala ikustea.</p> |
|----------------------|--|

Justifikazioa
Eremu Instituzionala

Azken diagnosis egin zenetik, ikastetxeko funtzionamenduaren egoera aldatu egin dela somatu dugu. Ondorengo lerroetan, jasotako datuen laburpena eta beraien inguruan egiten ditugun hainbat hasnarketa agertzen dira, atalka aberastuz:

1.- ESKOLA KONTSEILUA (Gizarte kontseilua)

Ikastetxeko organo gorena da. Bertan zuzendaria, idazkaria, 2 irakasle, gaineratiko langile bat, ikasle bat, administrazioko 3 ordezkari (2 hezkuntzako eta 1 enpleguko), enpresarien 2 ordezkari eta sindikatuen 2 ordezkari daude. Zuzendaritza pasatzen ditzuten datuen arabera, batzbestekoak ondorengoak dira:

Euskararen ezagutza (gehienez 4)

Ahozkoa: 2,75

Idatzizkoa: 3,00

Ahozko erabilera (bien artean 9)

Euskaraz: 2,5

Erderaz: 6,5

Ezagutzari eta erabilerari dagokionez desberdintasun nabarmenak ikusten dira kide desberdinen artean. Ikastetxeok diren kideen euskara-maila altuagoa da, baina kanpoko jendea nor den ez dago gure esku eta pertsonaren arabera altuagoa edo baxuago izan daiteke.

2.- ZUZENDARITZA

Euskararen ezagutza (gehienez 4)

Ahozkoa: 3,25

Idatzizkoa: 2,87

Ahozko erabilera (bien artean 9)

Euskaraz: 5,63

Erderaz: 3,37

Titulazioa: guztiek dute 2. Hizkuntz eskakizuna

Ez dugu datu zehatzik baina bilera gehienak gaztelaniaz egiten direla uste dugu, baita aktak ere.

3.- ADIGUNE

Eremu hau ez zen brankaren diagnosis sartzen, baina barne funtzionamenduan duen garrantziagatik sartzea erabaki dugu, balorazioa gure eskarmentuaren arabera egin dugularik.

Adiguneko bileretan euskararen ahozko erabilera igo egin da azken urteetan. Alde batetik, irakasleen perfilak aldatu egin direlako, dagoeneko ia pertsona guztiek 2.HE dute, eta bestalde, zuzendaritzakoek esfortzua egin dutelako bilerak euskaraz gidatzeko. Zuzendaritzan sartu den jende berriak ere erabileraren gorakada ekarri du. Hala ere, tratatzen den gaiaren arabera erderara jotzeko joera dago.

Aktak euskaraz egiten dira.

4.- IKAS & IRAKATSI BATZORDEA

Aurreko kasuan bezala eremu hau ez zen brankaren diagnosis sartzen, baina barne funtzionamenduan duen garrantziagatik sartzea erabaki dugu, balorazioa gure eskarmentuaren arabera egin dugularik

Bileretan ahozko komunikazioa gehienbat euskaraz izaten da. Idatzizko komunikazioari dagokionez (siten zintzilikatzen diren dokumentuak eta aktak) gehiena euskaraz dago.

5.- MINTEGIAK

Irakasleen mintzaramen bitartez mintegi bakoitzeko ahozko erabilerari buruzko informazioa lortu da. Mintegi gehienak % 80 - % 100 tartean daude.

Mintegi bakoitzean eremu formala nola jorratzen den jakiteko mintegietako ordezkari galdetu zaie, bai ahoz eta bai idatziz (akta). Alorguneko eta ikasguneko bilerak ere bereiztu dira, diferentziren egon daitezkelako. Emaizak ondorengoak dira:

- Automozioa, Elektronika, Kimika, Elikadura eta Soldaduran bilera guztiak euskaraz, bai ahoz eta bai idatziz.

- Fol, Mekatronika eta Hotz eta beroan, ahozkoa gehienbat euskaraz eta aktak euskaraz.

Orokorrean bilera nor gidatzen duen (alorburu, ikasburu) asko baldintzatzen du. Baita ere euskara menperatzen ez duen norbait egotea, gehienbat alorguneko bileretan, hor guztiak egoten direlako.

Esparru ez formalari dagokionez, gehienbat euskaraz mintegi guztietan, salbuespen batzuekin

Bestalde, orokorrean, departamentu batean irakasle erdaldunak egoteak askotan gaztelera jotzera eramaten gaitu. Egoera hori hobetzeko dauden estrategia desberdinak aztertu beharko ditugu aurrera begira. Hala ere, irakasle erdaldunen kopurua murrizten doa, finkoak jubilatzen doaz eta ordezkari euskaldunak dira.

6.- HIZKUNTZA IDATZIAREN ERABILERA ETA ORDENAGAILUAK (Orokorrean)

| | |
|---|---|
| <p>Eremu Instituzionala</p> | <p>Ikastetxeko barne funtzionamenduko agiriak (adib, plan estrategikoa, urteko plana, aurrekontuak, e. a.) gehien bat gaztelaniaz daude eta euskaraz dauden atalak dagokion arduradunak horrela egin dituelako da. Baina irizpide orokorrik ez dagoela esan daiteke.</p> <p>Ikasleekin zerikusia duten dokumentu gehienak elebitan daude, baino AJA gaztelania hutsean dago, nahiz eta oinarritzko dokumentu bat den.</p> <p>Web orria elebitan dago. Ordenagailuei dagokionez oso gutxi dira interfaza euskaraz dutenak.</p> <p>7.- KANPO HARREMANAK (Ahozkoa eta idatzizkoa)</p> <p>Ahozkoa komunikazioari dagokionez, norik hitz egiten duen eta norekin hitz egiten duen euskararen erabilera aldatzen da. Hezkuntzako administrazioarekin aukera gehiago daude euskaraz egiteko. Enpresa eremuan zailagoa da aukera hori izatea, baina geroz eta ohikoagoa da euskaraz egitea.</p> <p>Idatzizko komunikazioari dagokionez administrazioarekin elebitan izatea arruntagoa da</p> <p>8.- PAISAIA LINGUISTIKOA</p> <p>Orokorrean elebitan dago baina gauza asko daude hobetzeko. Gainera gauza asko euskara hutsean egotearekin nahiko izango zen. Espazio asko berritu dituzte (ETHAZIra egokituak) eta berrikustea komeni da.</p> |
| <p>Eremuaren gaineko hausnarketa eta 4 urteko plangintzarako irizpideak</p> | <p>Guzti hau kontutan izanda, hurrengo 4 urteetako helburua orain arte lortutakoa finkatzea eta hobekuntzak txertatzea izango da: euskaraz dokumentazio gehiago sortzea eta erabiltzea, organoetako bileretan euskararen ahozko komunikazioa areagotzea, irakaskuntza euskaraz jaso nahi duten ikasleen beharrei aurre egitea (materialak, agiriak, ...)</p> |
| <p>Eskola kideen hizkuntzako prestakuntza eta erabilera</p> | <p>Azken diagnostika egin zenetik hainbat aldaketa somatu dira eskolako kideen hizkuntza prestakuntza eta erabilerari dagokionez. Ondorengo lerroetan jasotako datuen laburpena eta beraien inguruan egiten ditugun hainbat hausnarketa agertzen dira, atalka bereiztuz.</p> <p>1.- IKASLEAK</p> <p>Jatorrizko hizkuntzari dagokionez, gure ikasleak leku oso desberdinetatik datoz, batzuk oso euskaldunak eta besteak oso erdaldunak. Euskaldunen artean nondik datozen ere joera desberdina izaten dute (Adib: Goieritik edo Donostitik).</p> <p>A ereduko taldeetan euskarazko maila ona duten ikasle dexente daudela ikusten da, euskara erabili ez arren</p> <p>D ereduko taldeetan euskararen aldeko hitzun aktibo gehiago identifikatzen dira, baina diferentzia gainontzako taldeekin ez da hainbestekoa. B eta D ereduko taldeetan askotan ikasle euskaldunek erderara jotzeko joera dute.</p> <p>Ziklo batzutan, gehienbat automozioan, sartzeko zailtasunak daudenez, ikasle erdaldun batzuk D ereduan matrikulatzen dira, ondoren arazoak sortzen direlarik bere euskarako maila baxua delako</p> <p>Beste kasu batzutan, D ereduan matrikulatzen dira, modu horretan euskarako habilitazio bat lortzen dutelako (B2). Praktikan ikusten da gero ez dutela esfortzurik egiten euskaraz egiteko</p> <p>Guzti hau dela eta, premiazkoa da D ereduko taldeetan euskararen ezagutza eta erabilpena ziurtatzea</p> <p>Azkenik, momentuz ethaziren ezarpenak ez du eragin berezirik normalkuntzan, pildorak (klase magistralak) ematen direnean ereduaren bereizketa errespetatzen delako, salbuespenak salbuespen.</p> <p>2.- IRAKASLEAK.</p> <p>Inkestan irakasleen % 76,40ak parte hartu du, zuzendaritzakoak kontatu gabe, hauek inkesta aparte bete dutelako</p> <p>Erantzun dutenen artean % 97ak 2.hizkuntza eskakizuna du eta gainontzeko % 3ak 1go hizkuntza eskakizuna du.</p> <p>Ezaguerari dagokionez batzabestko emaitzak ondorengo dira:</p> <p>Ahozkoa: 3,61 Idatzizkoa: 3,50</p> <p>Orokorrean ezagutza nahiko altua eta homogenea da. Nabaritzen da idatzizko ezagueran maila altua izatea gehiago kostatzen dela, hau da, zailtasun gehiago daude.</p> <p>Prestakuntzari dagokionez % 55ak ikastaroren bat egin du euskara hobetzeko edo euskaraz azkeneko 4 urteetan. Emaitza nahiko ona dirudi askotan ez dagoelako aukerarik ikastaroak euskaraz egiteko.</p> <p>3.- ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO LANGILEAK</p> <p>Eremu desberdinak bereiztu ditugu, eragin desberdina dutelako ere</p> <p>Bulegoan: Giroa asko euskaldundu da, jubilazioak medio, sartu den jende berria hobeto moldatzen delako euskaraz.</p> <p>Atezainak: Erreterikoak maila baxua dute euskarari dagokionez baina telefonoz saiatzen dira. Tolosakoaren kasuan oso euskalduna da eta euskararen aldeko joera du</p> <p>Mantenua: Euskarako maila ona</p> |

| | |
|--|--|
| Eskola kideen hizkuntzazko prestakuntza eta erabilera | <p>Garbitzailea: bakarra dago bertako langile bezala eta ez zaigu iruditzen eragin handi izan dezanik.</p> <p>Behar dutenek prestakuntza jasotzeko interesa azaldu dute, baina lanordu barruan izatea nahi dute</p> <p>4.- GURASOAK</p> <p>Lanbide Heziketako ikastetxea izan da, harreman gutxi egoten da gurasokin. Egoten dena gehien bat erdi mailan izaten da eta hizkuntzaren erabilera gurasoaren arabera izaten da.</p> |
| Eremuaren gaineko hausnarketa eta 4 urteko plangintzarako irizpideak | <p>Hurrengo 4 urteetan gure esfortzuak ikaslegoan zentratu beharko genituzke: Hasteko D ereduaren matrikulatzen diren ikasleek euskara maila ziurtatzea, kalitatezko D eredu bat izareko. Bestalde, ikasgela horietan ematen diren ikasgaietan materialen kopurua eta kalitatea haunditu, gela barruan eta gela kanpoan euskararen erabilpena bultzatu, beraientzat erakargarriak eta baliagarriak diren ekintzak antolatu,... Guzti honetarako irakasleek inplikazioa ezinbestekoa da.</p> <p>Gainontzeko langileen kasuan, pausoak eman behar dira barne eta kanpoko komunikaziorako elementu kritikoak direlako.</p> |
| Gelaz kanpoko jarduerak | <p>Modu hontako jarduerak geroz eta gehiago egiten ziren ikastetxean, nahiz eta azken 2 urteetan COVID19a dela eta asko eta asko bertan behera geratu diren. Hala ere poliki poliki berreskuratzen joatea espero da. Besteak beste: enpresetara irteerak, hitzaldiak, tailerrak, lehiaketak, bisitak, ... Teorian elebrietan izan arren, presentzia eta erabilera desberdina izaten da jardueraren arabera.</p> <p>Hori dela eta, azterketa sakonago bat egotea komeni da, hobekuntzak proposatu ahal izateko. Interesgarria izango litzateke gaur egun zein motatako jarduerak egiten ditugun zehaztea eta bakoitzaren egoera baloratzea.</p> |
| Eremuaren gaineko hausnarketa eta 4 urteko plangintzarako irizpideak | <p>Hurrengo 4 urteetan eremu honetan kanpora egiten diren bisitetan euskararen agerpena, ahal den neurrian, ziurtatzea izango da, gehienbat ikasleek enpresak bisitatzen dituztenean lan eremuan ere euskara erabiltzen dela ikus dezaten. Bestalde, geroz eta gehiago kanpoko jendeari (enpresak, langileak, teknikariak,...) zuzendutako ekintzak antolatzen ditugu, euskararen agerpena zaindu egin beharko zelarik. Azkenik beste erakunde edo elkarteekin elkarlana bultzatzea garrantzitsua da.</p> |
| Bestelako tresnak | <p>Diagnosia egiteko branka eta mintzagrama tresnetatik aparte, irakaslegoaren eskarmentuan oinarritu gara hainbat datu jasotzeko. Prozesu horretan normalikuntza batzordeko kide guztiek hartu dugu parte, 10 pertsona guztira, departamentu guztietako ordezkari bat egon delarik. Bakoitzak bere ikuspegia eta datu zehatzak eman ditu diagnosia aberastuz.</p> <p>Hontaz gain, irakasle zein ikasleei pasatako galtegiatan ekarpenak egiteko aukera erentsi diogu, erantzun asko jaso ditugularik eta lortutako emaitzak aberasgarriak izan direlarik.</p> |
| Eremuen lehenetasunen inguruko hausnarketa | <p>Guretzat garrantzi gehien duten eremuak lehenengo biak dira. Eremu instituzionala oraindik hutsune asko ditugulako eta eskola kideak, azken finean pertsonak direlako erakunde baten eraldaketarako motore bezala jokatu dezaketena. Kideen artean, lehen azaldu den bezala, ikasleek izango dute lehenetasuna.</p> |

4 URTEKO PROIEKTUA

1. IKASTETXEAREN ANTOLAMENDU ETA ERABILERA KOHERENTEAK

1.1. Ikastetxearen antolamendua

| Helburu zehatza | Ardura | Jarduera mota | Adierazle mota kuantitatiboa | Adierazle mota kualitatiboa | Denboralizazioa | | | |
|--|--|----------------------|--|------------------------------|-----------------|-------|-------|-------|
| | | | | | 22-23 | 23-24 | 24-25 | 25-26 |
| Zuzendaritza eredu izan dadila: klustroak, jendeaurrean... | Zuzendaritza | Antolaketa jarduerak | | Inkesta bidez baloratuko da. | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ |
| Ikastetxean erabiltzen diren dokumentazio desberdinetan hizkuntza-irizpide argiak zehaztu eta aplikatu | Zuzendaritza, Zuzendaritza, HN Batzordea | Antolaketa jarduerak | Zoriz aukeratutako dokumentazioan hizkuntza-irizpideen betetze maila | | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ |
| Ikastetxeko paisaia linguistikoan euskararen agerpena ziurtatzea | Zuzendaritza, Zuzendaritza, HN Batzordea, HN Batzordea | Antolaketa jarduerak | Egindako diagnosiaren emaitza | | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ |

| Helburu zehatza | Ardura | Jarduera mota | Adierazle mota kuantitatiboa | Adierazle mota kualitatiboa | Denboralizazioa | | | |
|---|---|----------------------|--|-----------------------------|-----------------|-------|-------|-------|
| | | | | | 22-23 | 23-24 | 24-25 | 25-26 |
| Guraso, ikasle edo langileei bidaltzen zaizkien idatzizko jakinarazpetan jarraitu behar diren hizkuntza-irizpideak zehaztu eta aplikatu | Zuzendaritza, Zuzendaritza, HN Batzordea, Zuzendaritza, HN Batzordea, Zuzendaritza, Idazkaritza, Irakasle talde bat (Ziklo, mintegi bateko kideak...) | Antolaketa jarduerak | Zoriz aukeratutako jakinarazpenetan hizkuntza-irizpideen betetze maila | | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ |
| Gizarte kontseilua proiektuaren jakinaren gainean egon dadila eta onartu dezala. | Zuzendaritza, Zuzendaritza, HN Batzordea, Zuzendaritza, HN Batzordea, Zuzendaritza, Idazkaritza, Irakasle talde bat (Ziklo, mintegi bateko kideak...), Zuzendaritza, HNAT | Antolaketa jarduerak | Bete da? | | ✓ | ✗ | ✗ | ✗ |

1.2. Normalizazioa sustatzeko erabakiak

| Helburu zehatza | Ardura | Jarduera mota | Adierazle mota kuantitatiboa | Adierazle mota kualitatiboa | Denboralizazioa | | | |
|--|---|--|---|-----------------------------|-----------------|-------|-------|-------|
| | | | | | 22-23 | 23-24 | 24-25 | 25-26 |
| Ikastetxeko lan-taldeak antolatze orduan normalkuntza kontutan izatea, batzordean zuzendaritzako eta mintegi bakoitzeko gutxienez ordezkaritza bat egotea. | Zuzendaritza, HNAT, HN Batzordea, Irakasle talde bat (Ziklo, mintegi bateko kideak...) | Antolaketa jarduerak | Bete da? | | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ |
| Ikastetxean D eredu indartzea, ingurune ikasleek bere ikasketak D eredu egiteko beharra asetuz (adibidez, matrikulazio garaian) indartzeko ekintzak aurrera eramanez | Zuzendaritza, HNAT, HN Batzordea, Irakasle talde bat (Ziklo, mintegi bateko kideak...), Zuzendaritza, Idazkaritza, Irakasle talde bat (Ziklo, mintegi bateko kideak...) | Antolaketa jarduerak, Sentiberatze-motibazio jarduerak | D eredu matrikulazioaren eboluzioaren balorazioa egin da. | | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ |
| AJA euskaratu | Zuzendaritza, HNAT, HN Batzordea, Irakasle talde bat (Ziklo, mintegi bateko kideak...), Zuzendaritza, Idazkaritza, Irakasle talde bat (Ziklo, mintegi bateko kideak...), Zuzendaritza | Antolaketa jarduerak | Bete da? | | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ |

| Helburu zehatza | Ardura | Jarduera mota | Adierazle mota kuantitatiboa | Adierazle mota kualitatiboa | Denboralizazioa | | | |
|---|---|---|---|-----------------------------|-----------------|-------|-------|-------|
| | | | | | 22-23 | 23-24 | 24-25 | 25-26 |
| Ikasturtero hizkuntza normalkuntzaren egoera modu simple batean (adib. Inkesta bat) ebaluatu eta ondorioak atera. | Zuzendaritza, HNAT, HN Batzordea, Irakasle talde bat (Ziklo, mintegi bateko kideak...), Zuzendaritza, Idazkaritza, Irakasle talde bat (Ziklo, mintegi bateko kideak...), Zuzendaritza, HNAT, HN Batzordea | Hausnarketa jarduerak, Ebaluazio jarduerak | Inkestan parte hartzea neurtuko da | | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ |
| Matrikulatzerako garaian, euskarazko gutxieneko maila bermatzeko aukerak aztertu. | Zuzendaritza, HNAT, HN Batzordea, Irakasle talde bat (Ziklo, mintegi bateko kideak...), Zuzendaritza, Idazkaritza, Irakasle talde bat (Ziklo, mintegi bateko kideak...), Zuzendaritza, HNAT, HN Batzordea, Zuzendaritza, HNAT, HN Batzordea | Hausnarketa jarduerak, Antolaketa jarduerak | Azterketa egin da eta horren arabera neurriak hartu dira. | | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ |
| Hizkuntza Normalkuntza Proiektua eta Urteko plana irakasle guztiei helaraztea. | Zuzendaritza, HNAT, HN Batzordea, Irakasle talde bat (Ziklo, mintegi bateko kideak...), Zuzendaritza, Idazkaritza, Irakasle talde bat (Ziklo, mintegi bateko kideak...), Zuzendaritza, HNAT, HN Batzordea, Zuzendaritza, HNAT, HN Batzordea, HNAT | Antolaketa jarduerak | Egin da? | | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ |

1.3. Kanpoko eragileekin harremanetarako hizkuntza-irizpideak

| Helburu zehatza | Ardura | Jarduera mota | Adierazle mota kuantitatiboa | Adierazle mota kualitatiboa | Denboralizazioa | | | |
|---|--|--|---------------------------------------|-----------------------------|-----------------|-------|-------|-------|
| | | | | | 22-23 | 23-24 | 24-25 | 25-26 |
| Harremanetarako hizkuntza euskara izatea eta ezin denean, gutxienez hasierako hitzak euskaraz izanez. | Zuzendaritza, Irakasle talde bat (Ziklo, mintegi bateko kideak...) | Antolaketa jarduerak, Sentiberatze-motibazio jarduerak | Batzordeko kideek egindako balorazioa | | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ |

| Helburu zehatza | Ardura | Jarduera mota | Adierazle mota kuantitatiboa | Adierazle mota kualitatiboa | Denboralizazioa | | | |
|---|--|----------------------|------------------------------|-----------------------------|-----------------|-------|-------|-------|
| | | | | | 22-23 | 23-24 | 24-25 | 25-26 |
| Gainontzeko eskola eta eragileekin harreman hestua izatea, dagokion bilera eta ekintzetan parte hartuz (adibidez, lantokiko prestakuntza, AEK eta Korrika, oarsoaldea, Galtzaundi elkarte, ...) | Zuzendaritza, Irakasle talde bat (Ziklo, mintegi bateko kideak...), HNAT, HN Batzordea | Antolaketa jarduerak | Bete da? | | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ |

1.4. Hizkuntza-irizpideak ikastetxearen eremu digitalean

| Helburu zehatza | Ardura | Jarduera mota | Adierazle mota kuantitatiboa | Adierazle mota kualitatiboa | Denboralizazioa | | | |
|--|---|--|--|-----------------------------|-----------------|-------|-------|-------|
| | | | | | 22-23 | 23-24 | 24-25 | 25-26 |
| Ikastetxeak bere eskaintza ezagutarazteko erabiltzen dituen elementuak (publizitatea, folletoak, web orria, sare sozialak,...) euskaraz izatea eta elebrietan egiten bada, euskarari lehentasuna ematea. | Zuzendaritza, HNAT, Irakasle talde bat (Ziklo, mintegi bateko kideak...) | Antolaketa jarduerak, Sentiberatze-motibazio jarduerak | Zoriz aukeratutako elementuen hizkuntza-irizpideen betetze maila | | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ |
| Ikastetxeko aldizkarian euskararen agerpena bermatzea eta sustatzea | Zuzendaritza, HNAT, Irakasle talde bat (Ziklo, mintegi bateko kideak...), HN Batzordea | Antolaketa jarduerak, Sentiberatze-motibazio jarduerak | Betetze maila | | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ |
| Irakaslego/langilego osoari zuzendutako emailak euskaraz izatea eta elebrietan egiten bada, euskarari lehentasuna ematea. | Zuzendaritza, HNAT, Irakasle talde bat (Ziklo, mintegi bateko kideak...), HN Batzordea, Zuzendaritza, Idazkaritza, HNAT, Irakasle talde bat (Ziklo, mintegi bateko kideak...) | Antolaketa jarduerak, Sentiberatze-motibazio jarduerak | Zoriz aukeratutako emailen hizkuntza-irizpideen betetze maila | | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ |
| Sistema operatiboa euskaraz jartzeko aukerak aztertu eta landu. | Zuzendaritza, HNAT, Irakasle talde bat (Ziklo, mintegi bateko kideak...), HN Batzordea, Zuzendaritza, Idazkaritza, HNAT, Irakasle talde bat (Ziklo, mintegi bateko kideak...), Zuzendaritza, HNAT | Hausnarketa jarduerak, Antolaketa jarduerak | Azterketa egin da. | | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ |

2. ESKOLAKO KIDEAK ETA EREMU DIDAKTIKO-METODOLOGIKOA

2.1 Ikasleak: motibazioa, jarrerak, portaerak eta emozioak.

| Helburu zehatza | Ardura | Jarduera mota | Adierazle mota kuantitatiboa | Adierazle mota kualitatiboa | Denboralizazioa | | | |
|---|--|----------------------------------|------------------------------|-----------------------------|-----------------|-------|-------|-------|
| | | | | | 22-23 | 23-24 | 24-25 | 25-26 |
| Ikasturteko momentu desberdinetan, euskararekin lotutako ekintzak antolatzea (lehiaketa, txapelketa, jokoak, ...) | HNAT, HN Batzordea | Sentiberatze-motibazio jarduerak | Betetze maila | | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ |
| Ikasturtero ikasleen euskararen erabilera eta euskararen aldeko jarrera saritzea (maila bakoitzean ikasle bat) | HNAT, HN Batzordea, HNAT, HN Batzordea, Irakasle talde bat (Ziklo, mintegi bateko kideak...) | Sentiberatze-motibazio jarduerak | Bete da? | | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ |
| Euskararekin zerikusia duten ekimenetan parte hartzea (korrika, euskararen eguna, euskaraldia, santo tomas...), ekintza desberdinetan euskara indartuz. | HNAT, HN Batzordea, HNAT, HN Batzordea, Irakasle talde bat (Ziklo, mintegi bateko kideak...), HN Batzordea, Irakasle talde bat (Ziklo, mintegi bateko kideak...) | Sentiberatze-motibazio jarduerak | Betetze maila | | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ |

2.2 Ikasleak: komunikaziorako konpetentzia.

| Helburu zehatza | Ardura | Jarduera mota | Adierazle mota kuantitatiboa | Adierazle mota kualitatiboa | Denboralizazioa | | | |
|---|--|--|-------------------------------|-----------------------------|-----------------|-------|-------|-------|
| | | | | | 22-23 | 23-24 | 24-25 | 25-26 |
| Ikasleentzat (gehienbat zailtasunak dituztenentzat) euskarako errefortzu klaseak ipintzeko aukerak aztertu eta martxan jarri. | HNAT, HN Batzordea | Hausnarketa jarduerak, Prestakuntza edo trebatze jarduerak | Egindako diagnosiaren emaitza | | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ |
| Ikasleei euskararekin lotuta dauden ikastaro eta ekintzei buruzko informazioa ematea eta parte hartzera animatzea. Adib: HABEko deialdiak | HNAT, HN Batzordea, HNAT, HN Batzordea | Antolaketa jarduerak | Bete da? | | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ |

2.3 Ikasleak: erabilera.

| Helburu zehatza | Ardura | Jarduera mota | Adierazle mota kuantitatiboa | Adierazle mota kualitatiboa | Denboralizazioa | | | |
|--|--|---|---------------------------------------|-----------------------------|-----------------|-------|-------|-------|
| | | | | | 22-23 | 23-24 | 24-25 | 25-26 |
| D ereduan gelako harremanetan euskararen erabilpena bultzatzeko estrategiak jorratu: arauak, kartelak, ... | HN Batzordea, Irakasle talde bat (Ziklo, mintegi bateko kideak...) | Hausnarketa jarduerak, Sentiberatze-motibazio jarduerak | Batzordeko kideek egindako balorazioa | | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ |

| Helburu zehatza | Ardura | Jarduera mota | Adierazle mota kuantitatiboa | Adierazle mota kualitatiboa | Denboralizazioa | | | |
|--|--|---|------------------------------|-----------------------------|-----------------|-------|-------|-------|
| | | | | | 22-23 | 23-24 | 24-25 | 25-26 |
| Euskaraz ez dakiten ikasleei baliabideak eskaini: esaldi zerrendak, itzultzaileak, ... | HN Batzordea, Irakasle talde bat (Ziklo, mintegi bateko kideak...), HNAT, HN Batzordea, Irakasle talde bat (Ziklo, mintegi bateko kideak...) | Sentiberatze-motibazio jarduerak, Prestakuntza edo trebatze jarduerak | Bete da? | | | | | |
| | | | | | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ |

2.4 Ikasleak: euskal kulturaren transmisioa.

| Helburu zehatza | Ardura | Jarduera mota | Adierazle mota kuantitatiboa | Adierazle mota kualitatiboa | Denboralizazioa | | | |
|---|--|---|-----------------------------------|-----------------------------|-----------------|-------|-------|-------|
| | | | | | 22-23 | 23-24 | 24-25 | 25-26 |
| LHDuala Euskaraz programa baliatuz, D ereduko ikasleek DUALean euskarak duen garrantziaz jabetzea. Horretarako Oarsoaldeako euskara zerbitzuaren laguntza ere aprobetxatuz. | HNAT, HN Batzordea, Irakasle talde bat (Ziklo, mintegi bateko kideak...), Besteren bat (ikastetxez kanpoko eragile bat...) | Hausnarketa jarduerak, Sentiberatze-motibazio jarduerak | Ikasleen parte hartzea programan. | | | | | |
| | | | | | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ |

2.5 Irakasleak.

| Helburu zehatza | Ardura | Jarduera mota | Adierazle mota kuantitatiboa | Adierazle mota kualitatiboa | Denboralizazioa | | | |
|---|--|-------------------------------------|--|-----------------------------|-----------------|-------|-------|-------|
| | | | | | 22-23 | 23-24 | 24-25 | 25-26 |
| Metodologia berriak (ETHAZI) ezartzerakoan D ereduko taldeetan euskararen agerpena eta erabilera ziurtatzea: antolakuntzan, pilulak ematerakoan, materialak, aurkezpenak egiteko aukerak... | Irakasle talde bat (Ziklo, mintegi bateko kideak...) | Antolaketa jarduerak | Batzordeko kideek egindako balorazioa | | | | | |
| | | | | | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ |
| D ereduko taldeetan ikasleek euskaraz komunikatzeko duten gaitasuna ziurtatzea, ebaluatzeko orduan. | Irakasle talde bat (Ziklo, mintegi bateko kideak...), Irakasle talde bat (Ziklo, mintegi bateko kideak...) | Antolaketa jarduerak | ETHAZI koordinatzailearekin adostutako ebaluatzeko gutxienekoak bete dira. | | | | | |
| | | | | | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ |
| Komunikazio-gaitasuna hobetzeko prestakuntza egiteko dituzten aukera desberdinei buruzko informazioa helerazi, parte hartzeraz animatuz | Irakasle talde bat (Ziklo, mintegi bateko kideak...), Irakasle talde bat (Ziklo, mintegi bateko kideak...), HNAT, HN Batzordea | Prestakuntza edo trebatze jarduerak | Bete da? | | | | | |
| | | | | | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ |

| Helburu zehatza | Ardura | Jarduera mota | Adierazle mota kuantitatiboa | Adierazle mota kualitatiboa | Denboralizazioa | | | |
|---|--|---|---|------------------------------|-----------------|-------|-------|-------|
| | | | | | 22-23 | 23-24 | 24-25 | 25-26 |
| Irakaslegoaren euskara teknikoa hobetzea, prestakuntza teknikoa euskaraz egitea bultzatuz. | Irakasle talde bat (Ziklo, mintegi bateko kideak...), Irakasle talde bat (Ziklo, mintegi bateko kideak...), HNAT, HN Batzordea, HNAT, HN Batzordea | Antolaketa jarduerak, Prestakuntza edo trebatze jarduerak | Irakasleek prestakuntza zein hizkuntzatan egin duten baloratu da. | | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ |
| Maila guztietako bileretan (klaustro, adigune, ikas-irakatsi, alorgune eta ikasgune) ahozko eta idatzizko komunikazioa euskaraz izatea, adostaturako hizkuntza irizpideak errespetatuz. | Irakasle talde bat (Ziklo, mintegi bateko kideak...), Irakasle talde bat (Ziklo, mintegi bateko kideak...), HNAT, HN Batzordea, HNAT, HN Batzordea, Zuzendaritza, HN Batzordea, Irakasle talde bat (Ziklo, mintegi bateko kideak...) | Antolaketa jarduerak | | Inkesta bidez baloratuko da. | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ |
| Euskararen lanketaren inguruan sortzen den informazioa irakasleen esku jarri: materialak, lotura interesgarriak, ikastaroak, laguntzak, berriak, | Irakasle talde bat (Ziklo, mintegi bateko kideak...), Irakasle talde bat (Ziklo, mintegi bateko kideak...), HNAT, HN Batzordea, HNAT, HN Batzordea, Zuzendaritza, HN Batzordea, Irakasle talde bat (Ziklo, mintegi bateko kideak...), HNAT, HN Batzordea | Antolaketa jarduerak | Informazioa bidali da. | | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ |

2.6 Administrazio eta zerbitzuetako langileak.

| Helburu zehatza | Ardura | Jarduera mota | Adierazle mota kuantitatiboa | Adierazle mota kualitatiboa | Denboralizazioa | | | |
|--|--------------------|--|------------------------------|-----------------------------|-----------------|-------|-------|-------|
| | | | | | 22-23 | 23-24 | 24-25 | 25-26 |
| AZLen laguntza eta partaidetza bultzatzea euskararekin lotutako ekimenetan: euskaraldia, euskararen eguna, ... | HN Batzordea | Antolaketa jarduerak, Sentiberatze-motibazio jarduerak | Parte hartu dute | | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ |
| Irakasleei bidaltzen zaien informazio berdina (edo antzekoa) helerazi | HN Batzordea, HNAT | Antolaketa jarduerak | Informazioa bidali da. | | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ |

3. FAMILIAK ETA KOMUNITATEA

3.1. Familiak

| Helburu zehatza | Ardura | Jarduera mota | Adierazle mota kuantitatiboa | Adierazle mota kualitatiboa | Denboralizazioa | | | |
|---|--|----------------------|------------------------------|------------------------------|-----------------|-------|-------|-------|
| | | | | | 22-23 | 23-24 | 24-25 | 25-26 |
| Irakasleen eta gurasoen arteko harremanetan euskararen erabilera sustatzea, bai banakako elkarrizketetan eta bai bileretan, familia bakoitzaren tipología kontutan edukiz | Irakasle talde bat (Ziklo, mintegi bateko kideak...) | Antolaketa jarduerak | | Inkesta bidez baloratuko da. | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ |

3.2. Komunitatea, eskolaz kanpoko jarduerak

| Helburu zehatza | Ardura | Jarduera mota | Adierazle mota kuantitatiboa | Adierazle mota kualitatiboa | Denboralizazioa | | | |
|---|--------------------|----------------------|---|-----------------------------|-----------------|-------|-------|-------|
| | | | | | 22-23 | 23-24 | 24-25 | 25-26 |
| Gelaz kanpo egiten diren jarduera desberdinak identifikatu eta bakoitzean euskararen agerpena eta erabilera aztertu, hobekuntzak proposatzeko eta martxan jartzeko. | HNAT, HN Batzordea | Antolaketa jarduerak | Azterketa egin da., Hobekuntzak proposatu eta martxan jarri dira. | | ✓ | ✓ | ✓ | ✓ |